



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

50 C.C.TIK BEHERAKO ZILINDRADA DUTEN TRAKZIO MEKANIKOKOIBILGAILUEN ZIRKULAZIOA ARAUTZEKO ORDENANTZA

OINARRIAK

Trafikoari buruzko gure legediaren zenbait alderdi Europako Batasuneko gainerako herrialdeetako legediekin bateratu beharrak aldakuntza sakonak ekarri ditu zirkulomotore hitzaren orain arteko definizioari dagokionez. Europako Elkaratearen 92/61 xedapenaren ondorio dira aldakuntza horiek, Europako Komunitateko herrialdeetako definizio desberdinak batzea izan baitzen horren xedea.

Elkaratearen xedapen hori aintzat hartuz gero, gaur egun badira hiriko bideetan barrena ibiltzen diren zenbait ibilgailu, bi, hiru eta lau gurpilekoak, zirkulomotoretzat jo beharrekoak, eta legeetako edo, bederen, Udal Trafiko Ordenantzako hutsuneak beteko dituzten neurriak hartu beharra dakar horrek berekin.

Badira zenbait alderdi trafikoari buruzko udal araudian aintzat hartu beharrekoak, hala nola aipatutako hiru-gurpileko eta lau-gurpileko horiek TAO araudiaren menpeko aparkatze eremuetan aparkatzeari dagozkionak, edo trafiko arau-hauste larriak direla-eta horiek gelditu atxikitzeari nahiz kaletik kendu eta hartarako biltegietan gordetzeari dagozkienak.

Etortzeko den Ibilgailuei buruzko Araudi Orokorren ondorioz zirkulomotore guztiak matrikulatu beharra egokituko da. Erakunde publiko bat nahiz bestea izan azkenean ibilgailu horiek matrikulatu eta erregistratzeko eskumena izango duena, hiriko Udalak bere gain hartu du neurri hori, eta, hortaz, bizilekua hirian duten zirkulomotore-jabeen zirkulomotoreak matrikulatzeari ekingo dio.

Neurria beharrezko da, lehenik eta behin, era horretako ibilgailuak identifikatzea zail delako, kontuan izanik fabrikatzaile bakoitzak kode propioa duela eta hori jartzen den lekua ez dela berbera zirkulomotore guztien kasuan. Era horretako ibilgailuak, eta batez ere arinenak, identifikatzea herritarrek eta udaltzainek maiz egindako eskariari erantzutea da; izan ere, behin baino gehiagotan egokitu dira horiek jokabide argi eta garbi arduragabea, baita, inoiz, ausarkeria nabarmena ere, erakutsi duten zirkulomotore gidariak gerora aurki ezinean; halakok, identifikatzeko ezintasun hori dela-eta zigortu gabe geratzen delarik, bere jokabide horri eustera egin dezakete hartara, gainera.

Bigarrenik, matrikula xafila nolabaiteko bermea da ibilgailuaren jabearentzat, inork hura lapurtzea edo legez kontrako eran erabiltzea egokituz gero.

Hirugarrenik, hiriko zarata-kutsaduran modu nabarmenean parte hartzen duten ibilgailuak dira zirkulomotoreak. Horiek ateratzen duten zarataren fenomenoak badu zerikusirik zenbait elementu aldatu ahal izatearekin, hala nola isilgailuak eta transmisio platerak; izan ere, zirkulomotoreen ezaugarriak ere, hala nola egiten dute zarata eta hartzen duten abaila, aldatu aldatu egiten dira hartara.

Ibilgailu horiek matrikulatzeak erreztasun handiagoa emango lieke udaltzainei jabeak identifikatzeko eta, aldakuntzarik egin dutela ikusiz gero, Industria Ministerioak homologatutako oinarrizko modeloetara egokitutako ibilgailuekin zirkulatzera behartzeko, baita lapurtutako zirkulomotoreak aurkitzeko eta lapurrak atzemateko ere.

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA.- ESKUMENA



Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak nahiz Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bideetako Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onetsi zeneko martxoaren 2ko 339/1990 LEDak trafikoaren eta zirkulazioaren alorrean Udalari atortzen dioten eskumenaz baliaturik ematen da Ordenantza hau, eta, aldi berean, ziklomotoreei buruzko Espainiako legedia harmonizatzen duen Europako Elkartearen 92/61 Xedapenaren ildotik. Orobat dira aplikagarri Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bideetako Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua berri-ritu zuen martxoaren 24ko 5/1997 Legearen edukia eta Ibilgailuen Araudi Orokorra eta Zigortze Prozeduraren Araudia Lege horretara egokitu zireneko urtarrilaren 30eko 116/98 Errege Dekretua.

2. ARTIKULUA.- XEDEA

Bizilekua Gasteizko udalerrian duten jabeen ziklomotore, hiru-gurpileko eta lau-gurpilekoen zirkulazioa arautu eta kontrolatzea da Ordenantza honen xedea, ziklomotoreei buruzko Espainiako legedia harmonizatzen duen Europako Elkartearen 92/61 Xedapenean jasotakoaren ildotik.

Orobat da ordenantza honen xede Jabe Erregistro Orokor bat ezartzea, ibilgailu horien jabetza-aldakuntzak kontrolatzea, arau-hausteak zaindu eta salatzea, eta kautelazko naurriak hartzea, hala nola ibilgailuak geldituz atxikitzea, bide publikotik kentzea eta hala-koetarako biltegiara eramatea.

3. XEDEA.- EZARPEN EREMUA

Gasteizko Udalerriko hiriguneetako bide guztietan izango da baliagarri ordenantza hau.

4. ARTIKULUA.- LEGEDI OROKORRAREN ERABILERA

Udal ordenantza honen osagarri gisa, 339/90 LED eta horren arautze-xedapenak baliatu ahal izango dira.

PRINTZIPIO OROKORRAK

5. ARTIKULUA.- ZIKLOMOTOREA

5.1.- Europako Elkartearen 92/6 Xedapenean ageri dira jasota ziklomotore, hiru-gurpileko eta lau-gurpilekotzat jo beharreko ibilgailuen definizioak.

a.- Ziklomotorea: Bi edo hiru gurpileko ibilgailua, gehienez 50 cm kubikoko zilindradako motorea duena, eta, egina den bezala egina izaki, orduko 45 kilometrotik gorako abailarik har ez dezakeena.

b.- Hiru-gurpilekoa: Hiru gurgil simetriko dituen ibilgailua, gehienez 50 cm kubikoko zilindradako motorea duena, barne errektuntzako bada, eta, egina den bezala egina izaki, orduko 45 kilometrotik gorako abailarik har ez dezakeena.

c.- Lau-gurpileko arina: Lau gurpileko ibilgailua, hutsik 350 kg.tik beherako masa duena, ibilgailu elektrikoaren kasuan baterien masa kontuan hartu gabe, egina den bezala egina izaki orduko 45 kilometrotik gorako abailarik har ez dezakeena, eta 50 zentimetro kubikotik beherako zilindradako motorea duena, eztanda motorea bada (edo, bestelako motorea bada, 4 Kw-ko edo hortik beherako potentzia garbia duena).

6. ARTIKULUA.- GIDARIAK ALDEAN ERAMAN BEHARREKO AGIRIAK

Honako hauek eraman beharko ditu aldean ziklomotore gidariak:

a.- Gidatzeko lizentzia edo baimena.

b.- Nahitaezko aseguru.



c.- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen txartela.

d.- Udal txartela.

I. IDAZPURUA: XEDAPEN OROKORRAK

I. ATALBURUA - UDAL TXARTELA

7. ARTIKULUA.- UDAL TXARTELA

Gidari orok aldean eraman beharko duen udal txartela Gasteizko Udalak emango du. Ziklomotorearen jabea identifikatzeko datuak, ibilgailua identifikatzeko datuak eta jabetza-eskualdatzeen datak ageriko dira bertan.

Txartelaren formatoa, II. eranskinean ageri baita, honako hau izango da:

- Neurria: 9 cm luze, 6 cm zabal.
- Paper mota: Kartoifina edo antzekoa.
- Agertuko diren datuak:

1.- AURREKO ALDEAN

Goian, ezkerreko aldean, hiriko armarrria, eta ondoan, "Ziklomotoreen Udal Txartela", izenburua, euskaraz eta erdaraz idatzia, eta jabea nahiz ziklomotorea identifikatzeko gainerako datuak (nortasun-agiria, izen-deiturak, helbidea, ziklomotore marka eta modeloa, bastidore zenbakia eta matrikula xaflaren zenbakia).

2.- ATZEKO ALDEAN

Ziklomotorearen ohiko gidaria ez bada haren jabea, gidariaren izena eta nortasun-agiria ageriko dira atzeko aldean.

8. ARTIKULUA.- UDAL TXARTELA ESKURATZEAZ

Ziklomotoreen Udal Txartela eskuratzeko hartarako eskaria egin beharko da, baita honako agiri hauek aurkeztu ere (jatorrizko nahiz erkatutako fotokopia):

- a.- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiria, indarrean diren xedapenen ildotik.
- b.- Jabearen nortasun-agiria. Jabea atzeritarra bada, berriz, jatorrizko herrialdean haren balio bera duen identifikazio agiria edo pasaportea.
- c.- Nahitaezko aseguru.

Eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, txartela emango zaio jabeari, matrikula xaflarekin batera. Udal Txartelaren kopia bat izango du Udaltzaingoak.

II. ATALBURUA - MATRIKULA XAFLA

9. ARTIKULUA.- MATRIKULA XAFLAK

Matrikula xafla metalezkoa izango da. Ziklomotorea nolakoa den, ondorengoa izango da xaflaren formatoa:

- a. Bi gurpileko ziklomotoreak: 16,8 cm luze eta 10 cm zabal izango den errektangelua.
- b. Hiru-gurpilekoak eta lau-gurpileko arinak: 34 cm luze eta 11 cm zabal izango den errektangelua.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena 1999/1/15

ALHAO, 10 zk. 1999/1/27

Azpia isladatzailea izango da, Duco hori kolorekoa, eta izki eta zenbakiak, berriz, beltzak eta mateak.

Izki-zenbaki hauek ageriko dira xaflan:

Bi gurpileko ziklomotoeen xaflak: Xaflaren goiko aldean: probintziaren kodea, zenbakiz (01 dagokio Arabari).

Xaflaren erdi aldean: Hiru zenbaki, trokelatuta, zero zenbakitik hasi (000) eta zenbaki-hurrenkerari jarraiki emanak.

Xaflaren beheko aldean: Bi izki, trokelatuta.

Lehenengo izkiak CC izango dira eta azkenengoak ZZ; ez da bokalik sartuko, hitz itsusirik-edo gerta ez dadin, ezta N eta Ñ izkiak ere, elkarrekin nahastu litezkeenez.

Hiru-gurpileko eta lau-gurpilekoen xaflak: eskuineko aldean, probintziaren kodea (01 Arabarako), bereiz eta segidan hiru zenbaki, hurrenkerari jarraiki emanak, eta bereiz eta segidan bi izki. Zenbaki eta izkiei dagokienez bi gurpileko ziklomotoereentzat xedatutakoa ere aplikagarri ziango da.

10. ARTIKULUA.- Ordenantza honetan jasotakoaren arabera ziklomotoretzat jo beharreko ibilgailu guztiek xafla eraman beharko dute atzeko aldean, une oro ongi ikusteko moduan. "Hegazkada" aukerarik ez uzteko moduan egon beharko dute jarrita, behar bezala identifikatzea galaraz lezakeen bestelako manipulaziorik ere gabe.

Ibilgailuari Udaltzaingoaren bulegoetan alta eman ondoren eskuratuko zaie xafla eskatzaileri.

III. ATALBURUA - ZIKLOMOTORE JABEEN ERREJISTROA

11. ARTIKULUA.- ERREJISTROA

Une jakin batean ziklomotore baten jabea nor den jakin ahal izateko eta gerta litezkeen eskualdatzeak jasoko dituen errejistroa edukitzearren, Udaltzaingoak errejistro bat izango du, euskarri informatikoan nahiz paperean, eta bertan honako hauek jasoko dira: jabeen datuak, ziklomotoereenak, eskualdatze datak, eta halakoetan ibilgailuak eskuratzen dituzten pertsonen datuak.

Hori dagokien bulegoetan jabetza aldaketen berri izan beharko dute, edozertarako dela ere.

12. ARTIKULUA.- ALTA ETA BAJAK

Jabetza nahiz helbide aldaketa oro Udaltzaingoaren bulegoetan eman beharko da jakitera, eta Udal Zirkulazio Txartel berria luzatuko du hark.

Orobat eman beharko da jakitera Udaltzaingoaren bulegoetan ibilgailu baja oro; halakoetan, ziklomotoerearen matrikula xafla eta udal zirkulazio txartela ere itzuli beharko dira.

Ibilgailua deseginez gero, matrikula xaflaz eta udal zirkulazio txartelaz gain, desegin zuen txatar-biltzailearen txostena ere aurkeztu beharko da Udaltzaingoaren bulegoetan.

Halaber eman beharko da Zirkulazio Kodeko 248. artikuluan jasotako arrazoietakoren baten kariaz gertatutako edozein bajaren berri.

13. ARTIKULUA.- TXARTELA BERRITZEAZ

Ordenantza honen menpe dagoen ibilgailu jabe orok eskatu ahal izango du Udal Txartela berritzeko baldin eta duena hondatu egin bazaio; horretarako, ordea, hondatutako entre-



gatu eta eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko ditu (nortasun agiria, ezaugarri teknikoaren ziurtagiria eta ziklomotore lizentzia).

Txartela galdu edo lapurtzea gertatuz gero, dagokion agintariaren aurrean salaketa jarri duela egiaztatuta beharko du, behar den agiria medio, ibilgailuaren jabeak.

IV. ATALBURUA EGITURA ALDAKUNTZAK

14. ARTIKULUA.- ALDAKUNTZAK

Behar bezala baimendutako edozein aldakuntza, baldin eta txasisean nahiz motorean eragina badu eta bastidore nahiz motore zenbakia aldatzea badakar berekin, jakitera eman beharko da Udaltzaingoaren bulegoetan, udal txartel berri luza dezan hark.

II. IDAZPURUA - ZARATAK ETA KUTSADURA

15. ARTIKULUA.- ZARATAK

Ziklomotoreek ateratzen dituzten zaratei dagokienez, gaur egun indarrean den Zarata eta Dardara-hotsak Igorri eta Hartzeari buruzko Udal Ordenantzan jasotako izango da aplikagarri.

Halaber izango dira aplikagarri, modu orokorrean, Ginebrako 1958ko martxoaren 20ko erabakiari erantsitako 41. eta 51. Araudiak, eta hura garatzen duten Dekretuak (82-5-18ko BOE eta 83-6-22ko BOE), baita Ingurunearen Babesa arautzen duen Eusko Jaurritzaren otsailaren 27ko 3/1998 Legea ere.

III. IDAZPURUA ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

16. ARTIKULUA.- ZIGORRAK

Ordenantza honetan jasotako arauak hausteak bide emango du zigorra jartzeko.

16.0.- Zirkulazio Araudi Orokorreko arauak, baita Zirkulazioari buruzko Udal Ordenantzan ziklomotoreak direla-eta berariaz aipatzen direnak ere, Araudi eta Ordenantza ber horietan xedatutakoaren arabera zigortuko dira.

16.1.- Bost mila pezetako (5.000 pta) isuna jarriz zigortu ahal izango da:

- a.- Ziklomotoreen Udal Txartela aldean eraman gabe zirkulatzea.
- b.- Matrikula xaflarik gabe zirkulatzea, eduki arren.

16.2.- Hamabost mila pezetako (15.000 pta) isuna jarriz zigortu ahal izango da:

- a.- Ibilgailuaren egiturari edo motoreari eragiten dion edozein aldakuntza, dagokion organoak baimendu gabe egin bada.
- b.- Matrikula xaflarik eduki gabe zirkulatzea.
- c.- Ziklomotoreen Udal Lizentzia eduki gabe zirkulatzea.
- d.- Manipulatutako nahiz faltsututako matrikula xaflekin zirkulatzea, edo beste ibilgailu batena erabiltzea, legez kontrako eran.
- e.- Manipulatutako nahiz faltsututako Udal Txartelarekin zirkulatzea.
- f.- "Ihes-tutua libre" zirkulatzea zikomotorearekin, isilgailurik gabe edo egindako zarata behar bezala kontrolatzea galarazten dioten defizientziak dituen isilgailuarekin.



16.2. atalean adierazitako arau-hausteeek berekin ekarriko dute, beti ere, ibilgailua gelditu atxiki eta halakoetarako biltegira eramatea, baita Ziklomotoreen Udal Txartela kentzea ere.

16.3.- Zarata kutsadurari nahiz gasak kanporatzeari dagokienez eskatutako gutxienezkoak baldin badira hausten direnak, horri buruzko Udal Ordenantzan xedatutakoaren arabera zigortuko da, eta, gainera, Udal Zirkulazio Txartela kenduko, harik eta egoera erregularizatu arte; aparteko kasuetan, gainera, ibilgailua zigilatu ahal izango zaio tipifikatutako gertakarien erantzule bide denari, kautela neurri gisa eta zigotze dosierra abiarazi ondoren.

ALDI BATERAKO XEDAPENAK

17. ARTIKULUA.- EPEA

Udal Ordenantza hau indarrean jartzen denetik, bizilekua Gasteizko udalerrian duten halako ibilgailuen jabeek hiru hilabeteko epea izango dute Udalean alta eskatzeko eta xafla bereizgarriak eskuratzeko. Epe hori igaro ondoren ibilgailuren batek xaflarik gabe zirkulatu badu, erabakitzen den zigorra jarriko zaio horren jabeari, eta gelditu atxikiko da ibilgailua egoera erregularizatzen ez den bitartean.

Bizilekua Gasteizko udalerrian ez duten pertsonak, baldin eta bertan ziklomotoreak erabiltzen badituzte, urte beteko epea izango dute beren egoera erregularizatzeke.

ZIKLOMOTOREEI BURUZKO UDAL ORDENANTZAREN ERANSKINAK

I. ERANSKINA

ZIKLOMOTOREEN XAFLAK						
Mota	Neurriak guztira	Ginazal isaldatzaila	Izkizenbakiak A	Izkizenbakiak L	Izkizenbakiak G	Koloreak
Bi Gurpileko ziklomotorea	100 x 168	90 x 158	13	30	3,5	H
Hiru-gurpilekoa, Lau-gurpilekoak	340 x 110	330 x 100	30	60	5	H

Bi motatako matrikulak izango dira. Bata bi gurpileko ziklomotore guztiek eraman behar dute, eta ibilgailuaren atzeko aldean jarriko da. Bestea, ziklomotoretzat jotzen diren hiru-gurpileko eta lau-gurpileko arinek eraman behar dute. Eginak diren bezala eginak izaki ohiko matrikula luzea eraman ezin duten M1 kategoriako ibilgailuek erabiltzen duten matrikularen neurrikoa izango da. Xafla horretako izki-zenbakien lodiera (Lo) 5 milimetrokoa izango da; bi gurpileko ibilgailuen xaflatakoak, berriz, 3,5 milimetrokoak.

II. ERANSKINA

ZIKLOMOTOREEN UDAL TXARTELA

NEURRIAK

GOIERA 9 cm;	ZABALERA 6 cm.	
Armarria	Gasteizko Udala.	Matrikula zenbakia



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena 1999/1/15

ALHAO, 10 zk. 1999/1/27

	01- 001-CC
Marka, modeloa, kolore MOBILETTE SORPION 345 ROJO	
Identifikazio zenbakia {123456789101234567890}	Baimendutako lekuak {2}
Izen-deiturak {izen-deiturak}	Nortasun-agiria {1234567890}
Helbidea {helbidea}	P.K. {posta kodea}
Gasteizen emana, egun honetan {AAAA/HH/EE}	

Ziklomotoreen Udal Txartelak ondorengo hauek jasoko ditu:

Matrikula Bastidore zenbakia Marka eta modeloa Leku kopurua	Nortasun agiria Izen-deiturak Helbidea (kalea, posta kodea) Eman zen eguna
--	---